


**INTXAURRONDO BASERRIA
A MAILA**

**INTXAURRONDO 62
INTXAURRONDO 62 ETA TXAPARRENE PASEALEKUA 25**



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Behe oinaz, lehen oinaz eta lau isurkiko faldoietako estalkipeko oinaz osatutako baserria. Ekialdeko fatxadan mehelina dauka. Oinplanoa azalera ertainekoa da, baina hormen eraikuntzagatik, galeriako soluzioagatik, kanpoko eskailezagatik eta trenbidera ematen duen hegoaldeko fatxadako pilareengatik nabarmentzen da. Horma gehienak harlangaitzez eginak daude, salbuetsirik izkinetako kateatuak, baoen azpadurak, erdi puntuko arkua, baoen hegazpeak eta teilatu hegaleko mentsulen aurreko erlaitz horizontala. Iparraldeko fatxadak hiru ate handi ditu. Horietako bi berriak dira eta ez dute harrizko atebururik.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Interes historiko-artistikoko probintzia monumentu deklaratu izanaren ondoriozkoa –1964-1-17ko Ministro Aginduaren bidez (52. BOEa, 1964-2-29koa)–.
- * Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.